

GOBERNU BATZARRA

2017 02 20

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko otsailaren hogeian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-Idazkari lanpostua betetzeko konkurtso arruntaren oinarri espezifikoak onartzeko akordio proposamena.
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	3.-"Zutani" elkartea: 2016. urteko likidazioa eta dirulaguntzaren ordainketa.
Kontuhartzaitza:	
Ainhoa Molinos Zubiaurre	4.-50/2016; 2 eta 3/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko otsailaren 13an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Idazkari lanpostua betetzeko konkurtso arruntaren oinarri espezifikoak onartzeko akordio proposamena.

Datorren apirilaren 30ean Idazkari plaza hutsik geratuko da; honela, legeak ezarritakoaren baitan, lanpostu hauek lehiaketa bidez hornitzen dira eta eskuduntza hauen izapidetza bideratzeko Foru Aldudiak du.

Honela, Aldundiak bidalitako idatziaren baitan, aipatu Estatu mailako gaikuntza estatala duten Toki Administrazioako funtzionarien lehiaketa arrunta ateratzeko, merezimenduak baloratuko dituen oinarriak igortzeko eskaera egin zaio Udalari.

Udalak, bere aldetik, aipatu plazaren oinarri espezifikoak onartzeko proposamena egin du.

Aipatu aurrekariak eta legeak emandako eskumenak kontuan hartuz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Udaleko Idazkari lanpostua betetzeko oinarri espezifikoak onartzea. Estatu mailako gaikuntza duten Toki Administrazioako funtzionarien lehiaketa arruntaren deialdian parte hartzeko. Dena den, osagarri bereziaren kopurua ez da argitaratuko.

BIGARRENA.- Oinarriak Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.

3.-"Zutani" elkartea: 2016. urteko likidazioa eta dirulaguntzaren ordainketa.

Gobernu Batzarrak, 2016ko apirilaren 25ean, besteak beste, erabaki zuen "Zutani" elkarteari 7.000€-ko dirulaguntza ordaintzea.

Aztertu ondoren 2016. urtean izan dituzten diru-sarrereren eta gastuen likidazioa, baita fakturak ere, eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- "Zutani" elkarteari 885,77 €-ko dirulaguntza ordaintzea, 2016. urteko aurrekontuaren kargura.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari eta "Zutani" elkarteari.

4.- 50/2016; 2 eta 3/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzaz **50/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **41.193,10 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **50/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **2/2017** faktura zerrenda aurkeztu du; **2.333,34 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2/2017 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **3/2017** faktura zerrenda aurkeztu du; **199.132,17 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 3/2017 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA